




Defendatzaileen — Buletina —

Boletín Defensoras

Apirila - Abril 2023

Índice



01

Aurkezpena

02

Lesh eta Micaelari
eginiko elkarrizketa,
"Yo no quiero ser
violada"
mugimenduko
kideak

03


Arte feminista
kolektiboa:
sendatzea,
aktibismoa eta
borroka

04

Hurrengo
jarduerak

05

Bea Aparicioaren
ilustrazioa



Aurkezpena

Irakurle maitea,

Lumaltik Herriak-etik bultzatzen ari garen #OihartzunTalka kanpainaren azken buletina aurkezten dizugu. Beti bezala, ilusio handiz eta sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalaren aurkako borrokak kolektibizatzeke asmoarekin, Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko lurraldeak hurbilduz. Horretarako, elkarriketarako, elkartrukerako eta sentsibilizaziorako guneak sortzea funtsezkoa dela uste dugu. Espazio horietan, gure gorputz-lurra defendatzen duten eta Erdialdeko Amerikako hainbat lurraldetatik datozen emakumeek beren borrokak eta esperientziak partekatzen dituzte, Euskal Herriaren eta bere prozesuen arteko elkartasuna sustatuz, herrien eta emakumeen autonomia defendatzearen alde.

Lehen buletinak ikusi ez badituzu, gogoraraten dizugu #OihartzunTalka 2021eko udaberrian kaleratu zela, Erdialdeko Amerikako emakumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa-prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotsa altxatzeko helburu tinkoarekin. Komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarri. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hau da, salaketa-kanpaina bat sustatu dugu, gogoeta egiteko eta zaintza eta autodefentsa-ekintzak bideratzeko.

2023ko lehen buletin honekin, indarkeria matxistaren aurkako defentsa prozesu kolektiboak jorratu nahi ditugu, salaketa estrategia gisa arteaz baliatzen diren horiek batez ere. Zainketa, osasun eta elkar-eman espaziotzat hartzen ditugunez, borroka transfeministetan duten ahalmena nabarmendu nahi dugu. Hitz hutsetik haragoko adierazpen estrategiak eta formak ditugunean, gure sentimendu eta askatasun artistikoari ateak zabaltzen dizkiogu. Prozesu kolektiboetan parte hartzen dugunean, bakarrik ez gaudela oharkabetzen gara. Hori guztia eskaintzen digute artearekin lotutako esperientzia komunitarioek.

Lesh eta Micaelari, “Yo no quiero ser violada” mugimenduko kideak, egindako elkarriketaren ondoren, adierazpen artistikoak ardatzat hartzen dituzten hiru kolektibo faministei eginiko erreportai bat egin dugu. Talde horiek Las Poderosas Teatro guatemalarra, Colectivos Amoralessalvadortarra eta Euskal Herriko Femgarabat dira. Talde horiek partekatutako gogoetak, esperientziak eta jardueren laburpenak aurkituko dituzue bertan. Horie inspirazio iturri izango direla espero dugu.

Hezkuntza@lumaltik.org helbidean edota gure sare sozialen bidez gurekin harremanetan jartzeko aukera dago. Ongi etorri!





Lesh eta Micaelari eginiko elkarrizketa, "Yo no quiero ser violada" mugimenduko kideak

"Yo no quiero ser violada" emakume gazteen egonezinaren ondorioz sortutako kolektiboa da. Haserre eta nazkatuta gaude emakumeak gure bizitzako espazio guztietan bortxatuak izateaz. Bortxaketa ikuspuntu desberdinetatik hartuta, eta sexu indarkeria atalartekoa dela eta gure indibidualtasunetik areagotzen dela onartuz. Gure buruak subjektu edo izaki politiko gisa nola antzematen ditugun, eta gure identitate eta orientabideetatik nola kokatzen garen haintzat hartuta.



2018. urtean, medikuntzako ikasle bat hil zuten autobus batean bortxatzen ez uzteagatik. Gertakari horrekin ondoeza piztu zen. Gero, lankide bat bortxatu zuten egun-argitan, herrialdearen iparraldeko unibertsitateko komun batean, San Pedro Sulan hain zuzen. Hori gertatu zenean, "Aski da!" oihukatzea bezala izan zen. Guztion aurrean bortxatzen gaituzte, eta inork ez du ahotsik altxatzen. Indarkeriaren normalkuntzara bizi ginen, alegia. Hasteko, kanpaina bat bideratu genuen herrialdeko unibertsitate garrantzitsuenetan. Bertan, ikasle gazteenek nolabaiteko lotsaren horma batean unibertsitatean bertan jasandako sexu indarkeria mota ezberdinak irudikatu zituzten. Irakasleek, unibertsitate bertan lan egiten duten estatuaren entitateak edota euren ikaskideek areagotzen dituztenak. Kanpaina horrek zeresan handia izan zuen gizartean, eta mobilizazio itzela eragin zuen unibertsitatean. Hori areagotuz joan zen, eta azkenean ez zen unibertsitateen soilik geratu, baizik eta gutako inork espero ez zuen moduan hedatzea lortu zen.

Iparraldeko eskualdeetako kideen informazioa jasotzen hasi ginen, bai beste unibertsitate batzuetatik, zein lurraldearen defendatzaile edota emakume indigenen eskutik. 2018ko azaroan burutu zen lehen batzar nazionala, eta han osatu zen "Yo no quiero ser violada" mugimendua. Askotariko emakumeak bere baitan hartuz: lesbianak, bisexualak, trans, zisgenero etab. "Emakume izateagatik, lesbiana izateagatik, trans izateagatik bortxatzen gaituzte", izan zen gure aldarrikapena.

***"Jada ez gara kalean trabak egiten ari zen taldetxo iraultzaile hura.
Orain jarrera politagoa dugu"***

Hondurasen ez dugu zifra ofizialik. Komunikabideek agintarien estandar eta irizpideei erantzuten diete eta, beraz, emandako informazioa irreal da kasu askotan, indarkeria bermatuz eta normalizatuz. Informazioa eman behar diguten egiturengan konfidantza ez izaten ikasi genuen, Estatuak inolako informazio zehatzik eskainiko ez zigula onartu genuen. Hutsune hori antzeman eta gero, buletinak kaleratzea erabaki genuen, emakumeek jasaten dituzten indarkeriak benetan ikusarazteko, agerian eta ikusgai izan zitezten. Lehenengo bulletina “Estados violadores” titulupean kaleratu zen, bigarrenari “Violadas en nombre de la fe” titulu deigarria jarri genion. Bigarren horretan, salatu eta agerian jartzen ditugu Jainkoaren izenean egindako bortxaketa guztiak, emakume lesbianeiei taldean egindako bortxaketa zuzenak, edota exorzismoak “deabrua barrenetik ateratzeko” aitzakiarekin. Pederasta edo serieko bortxatzaileei Bibliaren erabilerak ustezko boterea eskaintzen diela dirudi sarritan.

Estatu eta nazioarte mailan errekonozimendua duen Red Lesbica Cattrachas indarkeriazko heriotzen behatokiak agerian utzi duenez, krisialdi sozial eta politikoetan heriotzak izugarri ugaltzen dira, eta hainbat biztanlek gorroto krimen gehiago jasaten dituzte. Aurten (2019) 26 heriotza bortitz izan dira. Transexualen hilketak oso krimen sinbolikoak dira: duela aste batzuk lankide bat zatikatu egin zuten. Sexu-langileak diren trans lankideentzat inolako segurtasunik ez dagoela antzeman dugu. Estatuarentzat ez dira existitzen, ez dago inolako errekonozimendurik.

"Inpunitate osoa dago emakumeen aurkako indarkeria-erantzat, bai sexu indarkeria-erantzat, bai protesta eta aborto eskubide-erantzat"

Gure lorpen nagusienetako bat kideen artean dugun ahizpatasuna da. Nola biltzen garen borroka horren inguruan, ez ditugu kasuak ikusezin uzten. Denak parte sentitzen dira eta parte hartzen dute, "Yo no quiero ser violada" leloa berea egiten dute. Aurrera eramaten ari diren salaketa guzti horien inguruan batzea. Mugimendua askotarikoa da, hain zuzen. Bertan feministak daude, emakumeen eskubideen alde borrokatzen diren emakumeak daude, euren buruak feministatzat hartzen ez duten bi emakume daude baita, erlijio ideologia argiak dituzten kideak daude. Mugimendua osatzen duten indibidualtasunak eta, ondoren, kolektibitateak eraiki ditugun printzipioetan oinarrituta dagoen errespetua oso nabarmena da, espazio hori enpatikoa eta eroso izan dadin. Kide denekin sentitu eta hitz egin ahal izatea oso aberasgarria da guretzat: bakoitzak duen testuingurutik, bere lurraldetik, denak eroso sentitzea, bestea ez epaitzea, jazartzen ez dena, seguru sentitzen dena... Askotan zaila izaten da horrelako espazioak sortzea. Gure lorpenik handiena horixe bera baita.

"Guretzat, barre egitea eta zoriontsu izatea geure burua zaintzea da"

Guztiok elkar ikusten dugun bakoitzean, besarkada bat ematen dugu, eta besarkada hau munduko maitasun eta adiskidetasun guztiarekin dator. Gutako bakoitzak bere eginkizunak ditu. Gutako bakoitzak ezaugarri propio bat duela ulertzea, espazioari zerbait paregabea eskaintzen diona. Intentsua dugu beti piztuta, airea garbitzen laguntzeko. Jardunaldi astunak ditugun arren (eztabaidak, mahai-inguruak), gero erlaxazio gune dinamiko batera goaz, bakoitzak bere burua aska dadin, barre egin dezan, biluztu etab.

"Elkarrekin gaudenean, ahalik eta gehien mimatzen saiatzen gara"

Bakarkako lana oso konplexua da. Gorpuak ikustea eta horiek altxatzea tokatzen zaigu sarritan. Nire kasuan, nire asaben harrietara jotzen dut ia beti, energia berristatzera. Lurrarekin batu nauen emakume horrekin adiskidetu, nire amona kasu honetan, eta bere etengabeko solasaldi horiekin bat egiten dut. Nork bere mekanismo pertsonalak garatzen dituela uste dut. Krisia uneak ere baditugu kasu askotan, eta ez badakizu zer egin zure bizitzarekin edota nora jo, lur jota sentitzen baitzara. Baina ulertzen duzu, halaber, gaizki bazaude, lankide horietako edozeini deitu eta laguntza eskatzen badiozu, haiek erantzungo dizutela, eta mugitu behar badira, mugitu egingo direla. Orduan, nork bere burua zaintzen du, baina baita taldean ere. Hau da, urrun bizi garen arren, guztiak guztien zain gaude.


"Zoriontsu izatea zure bizitzako egun guztietan. Irribarre batekin jaikitzea, eta herrialdea bertan behera erortzen ez ikustea batzuek euren sabelak betetzen dituzten bitartean, eta gure bizitzak babesten saiatzeagatik hilketa gehiago eman daitezen. Amets bat dela badakit, utopia bat da"



Argazkiak: @YViolada Twitter



Argazkia: Cristina Baussan/Al Jazeera



Arte feminista kolektiboa: sendatzea, aktibismoa eta borroka



Las Poderosas Teatro

Argazkia: Ruda GT

2008az geroztik, Guatemalako emakume talde honek antzerkia erabiltzen du bere bizipenak, sentipenak, kezkak, nahiak eta ametsak aldarrikatzeko. Horiek dira Telma Ajín, Adelma Cifuentes, Mayra Salvador, Telma Sarceño, Lesbia Téllez, Melany Vicente eta Javivi Paz, eta, beren seme-alabekin batera, Las Poderosas Teatro taldea osatzen dute.

Antzerki biografiko-dokumental proiektu bat da, eta, haren bidez, genero indarkeria pairatu izan duten emakume hauek beren esperientzietan oinarritutako ikerketa eta sorkuntza prozesuak gauzatzen dituzte. Askotariko emakumek osatutako konpainia da (maiak, mestizoak, afrikar ondorengoak eta etorkinak), eta konpainiak bi antzezlan aurkeztu ditu: Las Poderosas eta In La K'ech (ni beste ZU bat naiz). Joan den urteko azaroan bira bat egin zuten Espainiar estatuan zehar, bigarren lana aurkezteko. Bira horri esker Euskal Herriko hainbat tokitan izan ziren, hala nola Getxon, Bilbon edo Arratian, non Basoa Defendatzaileen Etxeak ateak ireki zizkien.



Argazkia: Casa América

Antzerki emanaldiaz gain, Las Poderosas Teatro taldeak erakusketa artistikoak egiten ditu bai kaleetan bai ikasgeletan. 2011. urteaz geroztik, prestakuntza tailerrak eskaintzen dizkiete beste erakunde batzuei, emakume taldeei, irakasleei eta ikasleei..., betiere norbera sendatzeko eta gizartea kontzientziazteko tresna gisa antzerkiaren indarra erabiliz. Horrez gain, ipuin ilustratu bat argitaratu dute, Las Poderosas izenekoa. Hizkera erraz bat erabiltzen dute, eta super botereak garatu dituzte indarkeria matxistei elkarrekin aurre egiteko eta biktimak gogorarazteko.



Argazkiak: @laspoderosasteatro Instagram

Bere lan eta erakusketen bidez, emakume talde honek bere gaitasun pertsonalak indartzea sustatzen du, baina baita besteen sorkuntza eta adierazpen prozesuak partekatzen ere. Indarkeria matxistei aurrea hartzeko eta haietaz kontzientziazteko gizartean eragina duten aldi berean, emakume hauek beren burua zaintzeko, norbanakoaren eta taldearen ahalduntzerako eta beren maitasunerako espazio propio gisa ulertzen dute artea. Antzerkiaren, poesiaren, musikaren eta ipuinen bidez, haien istorioak kontatzen dituzte, eta taldean sendatzen dira.

Colectiva Amorales



El Salvadorretik, sexu eta genero disidenteen emakume talde honek artearen aldeko apustua egin du, indar hegemonikoen kontrako komunikazio bide gisa. Sormen kolektiboko espazioak antolatzen dituzte, kontranarratiba feministak eraikitzeko, artea gizartea eraldatzeko tresna gisa erabiliz.

Besteak beste, Laboratorio de Arte Feminista Voces Antagónicas Arte proiektua antolatu du 2021 eta 2022an. Sare sozialetan zabalduetako informazioaren arabera, bi hilabeteko esperientzia da eta hamar bat artista tailer, elkarrizketa eta talde ariketen inguruan antolatzen dira, tresna artistiko berriak aztertzeko eta haien sorkuntzei buruz hausnartzeko. Tailer horietako batzuk, adibidez, bideoak grabatzeari eta editatzeari buruzkoak edo podcasterako gidioak idaztearen gainekoak dira. Beste espazio batzuetan, inguruan duten testuinguru soziopolitikoari, munduan pertsona eta artista disidente eta feminista gisa duten posizioari edo diskurtso alternatiboak sortzearen garrantziari buruzko gogoeta kolektibora bideratzen dira.


Laborategira joaten diren hilabeteetan, parte-hartzaileek beren lan propioak sortzen dituzte, bai ikus-entzunezkoak, bai literarioak, musikalak edota piktorikoak. Azken ekitaldi gisa, jendearentzako erakusketa ireki eta doakoa antolatzen dute. Horrekin, ikasitako guztia ospatzeko espazio propioa izan nahi dute, baina, horrez gain, inguruko jendearekin partekatu nahi dute, betiere arte feminista erabiliz gizartean eragiteko ideiarekin.





Voces Antagónicas ez da Grupo Amoralesen proiektu bakarra, ekitaldi puntualak ere antolatzen ditu, hala nola twerk tailerrak edota ipuin erotiko feministen emanaldiak, baina baita ekitaldi handiagoak eta aldizkakoagoak ere, Akelarre del Fin jaialdia esate baterako. Bertan, parte hartzaileek beren sorkuntza artistiko disruptiboak aurkezten dituzte, hala nola poesia eta performancea, rap, trap, cumbia eta regetoiaren arteko nahasketa musikalak, emakumeen boterea aldarrikatzeko errituak, sinbolismoz betetako antzerkia eta dantzak...

Gainera, talde honek bere ahalmen artistikoa eta herri indarra erabiltzen ditu #NoMeDejo bezalako kanpainak sortzeko. 2022ko azaroan, 25N-aren esparruan antolatutako ekintza da, bizi izandako indarkeria matxisten testigantzak, salaketak etagogoetak biltzeko. Borroka konkretuen mesedetan ere jartzen dute beren artea, hala nola, Justizia para Fernanda kanpainan, duela lau urte indarkeria matxistagatik eraildako salvadortar gaztea, Michael Murga justiziaren iheslariak hil zuen. Azken finean, talde hau arteak gizartearen eraldaketa feministan nola lagun dezakeen erakusten duen adibidea da.





Femgarabat

Argazkia: @femgarabat Facebook

Euskal Herritik, Bea Aparicio eta Janire Ordunak osatutako talde artistiko honek munduko hainbat pertsonen artean sortzen ari garen eredu feminista berria eraikitzen laguntzen du. Emakumeek, beren talentuei esker, irudikapen eta komunikazio feministaren bidez egiten dute, errealitate, borroka eta identitate alternatiboak ikusarazten saiatzeko. Feminismoaren eta gizarte eraldaketaren alde egindako lanari esker, Femgarabat askotan aritu da gurekin lankidetzan.



2022ko ekainaren 12an "Artea (ber)eraikitzeko tresna gisa" tailerra zan genituen gurekin lanean. Egun hartan, Bea eta Janirek tresna artistikoak eta komunikazio grafikokoak partekatu zizkiguten, bai gure kolektibo edo erakundeetan erabiltzeko, baita bakarka erabil genitzakeenak ere. Ideia nagusia ezagutzak partekatzea zen, borroka feministan gure gaitasun kolektiboa areagotzeko helburuarekin.

Hala ere, jarduera hura fanzine bat eta kolektiboki sortutako pankarta handi bat sortzea baino askoz gehiago izan zen, zainketak bizitzaren erdian kokatzeko nahia eta garrantziaren inguruan ere hausnartu baikenuen. Bertan, sinergiak eta harreman oso bereziak sortu ziren parte hartzaileen artean, eta aukera eman ziguten taldean sortzeko ahalmena lehen pertsonan bizitzeko. Horri esker, gure kezkak eta beharrak adierazteko gai izan ginen, baina baita lorpen eta jabekuntza sentrazioa ere partekatu genuen.

Esperientzia hari esker, burua eta arrazionaltasuna ez ziren gure beste ataletatik adierazteko aukera izan genuen. Arteak gu zeharkatu eta gure hitzekin espresatzeko aukera izan genuen.



HURRENGO JARDUERAK





"Lurraldearen defentsa, estraktibismoa eta arrazakeria" tailerrak



IES Ipintza (Bergara)



IES Eskurtze (Bilbao)



IES Egibide (Gasteiz)

Apirila



Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin topaguneak

Maiatz

Nazioarteko jardunaldiak

Elkarrizketak

Tailerrak

...eta askoz gehiago!



Bea Aparicioaren ilustrazioa



Identitate aniztasuna: gure gorputz eta identitateen aniztasuna onartzen duen gizarte bat nahi dugu, gu besarkatzeko gai dena, babesa eskaintzeko gai dena, onarpena eta askatasunez bizitzeko eta garatzeko dugun eskubidea bermatzea ahalbidetuko digun gizarte bat, alegia.



lumatik
HERRIAK

